

2021-2022 IKASTURTEAN UNIBERTSITATE-BEKA IZATEKO ESKATUTAKO GUTXIENeko KREDITUEI BURUZKO INFORMAZIOA (24. eta 25. artikulua)

| BEKARAKO ZENBATZEN DIREN ETA ORDAINTZEN DIREN KREDITUAK | BEKARAKO ZENBATZEN DITUZTEN BAINA ORDAINTZEN EZ DIREN KREDITUAK | GUTXIENEKORAKO KONTUAN HARTZEN EZ DIREN KREDITUAK ETA ORDAINTZEN EZ DIRENAK   |
|---|---|---|
| 1. eta 2. matrikuletako kredituak                       | 3. eta 4. matrikuletako kredituak                               | Baliozkotu, egokitu edo aitortu diren kredituak   |
|   |   | Ikasturtean zehar amortizatuko diren hautazko irakasgaiei dagozkien kredituak   |
|   |   | Espezialitate bat baino gehiagoko irakasgai edo kredituak, ezta dagokion titulua eskuratzeko behar diren kopurutik gorakoak |

| IKASKETA MOTAK                            | BEKARAKO ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENEKOA | ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENekoAREN SALBUESPENAK   | ERAGINA OSAGAIETAN ETA KOBRATU BEHARREKO ZENBATEKOETAN  |
|---|---|--|---|
| GRADUA<br>EDO<br>GOI-MAILAKO<br>IKASKETAK | 60 kreditu                                | <b>Unibertsitateko araudia:</b> kreditu posible guztietan matrikulatzen da, unibertsitatearen araudiak matrikula daitekeen kreditu kopurua mugatzen duelako (unibertsitateak ziurtatu beharko du). <b>Ez da salbuespen hori aplikatuko</b> nahitaezko edo hautazko kredituak matrikulatzeko aukera badago.   | <b>12 eta 35 kreditu</b> artean matrikulatzen bada: osagaien zenbatekoa % 50 murrizten da, matrikularen prezio publikoa izan ezik, osorik ordaintzen baita.   |
|   |   | <b>Azken kredituak:</b> ikasketak amaitzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatzen da, ikasturtean amortizatuko dituen hautazko kredituak (oraindik amortizatuta ez badaude ere) edo gradu amaierako lana izan ezik.  | <b>12 kreditu edo gutxiagoko matrikula</b> egiten bada, matrikula-osagaia baino ez dagokio.   |
|   |   | <b>Ikasketa erdipresentzialak /on line:</b> gutxienez 30 kreditu   | Osagai hauek dagozkio: matrikula, ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari eta hiriarteko joan-etorriei laguntzeari lotutako zenbateko osagarriak.  |
|   |   | <b>Matrikula partziala:</b> gutxienez 30 kreditu <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasketak eta lan-jarduera bateragarri egiten ditu (lan-kontratuarekin justifikatu)</li> <li>Curriculumeko kanpoko praktiketako kredituak baliozkotzen edo aitortzen zaizkio (ikasketa-planean nahitaezkoak), eta horregatik ezin da 60 kreditutan matrikulatu.</li> <li>Kredituak baliozkotzen edo aitortzen zaizkio, Lanbide Heziketatik datorrelako.</li> </ul> | <b>Matrikula 46 kreditu baino gutxiagokoa bada</b> , hiru osagai soilik lortu ahal izango ditu: matrikula, ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari eta hiriarteko joan-etorriei laguntzeari lotutako zenbateko osagarriak. |
|   |   | Eskatzaileak desgaitasuna => % 65 du: irakastorduak % 50eraino murriztu ditzake  | <b>Kredituen % 100ean matrikulatzen bada</b> , osagaien zenbatekoak bikoiztu egingo dira.   |
| URTE BATEKO MASTERRA                      | Kurtso osoa                               | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Unibertsitateko araudiak</b> edo ikasketa-planak kreditu-kopuru txikiagoa aurreikusten du urte horretarako, betiere gutxienez 30 kredituko matrikula egiten bada.</li> <li>Masterrean sartutako <b>kredituren bat baliozkotu edo aitortu</b> zaio, betiere matrikulatutako gutxienezko <b>30 kreditutik gorakoa bada</b>.</li> </ul>   | <b>Matrikula 46 kreditu baino gutxiagokoa bada</b> , hiru osagai soilik lortu ahal izango ditu: matrikula, ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari eta hiriarteko joan-etorriei laguntzeari lotutako zenbateko osagarriak. |
| 2 URTEKO MASTERRA                         | 1. urtea: 60<br>2. urtea: gainerakoa      | Masterra amaitzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatzen da  | <b>12 eta 35 kreditu</b> artean matrikulatzen bada: osagaien zenbatekoa % 50 murrizten da, matrikularen prezio publikoa izan ezik, osorik ordaintzen baita.   |

